

2000ko AZAROaren 6ko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, bi milako azaroaren seiean, gaueko bederatziak direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Ana Ederra Irurzun, Nerea Altuna Zubeldia, Lontxo Goikoetxeaundia Martinez, Xabier Balerdi Urdampilleta; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

1.- AURREKO AKTAREN ONARPENA:

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

2.- TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN TRAMO ETA TARIFA ALDAKETA

Alkateak, hitza harturik, zera dio:

Udal honek onartuak ditu, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Gaineko Zergatik kobratu behar ziren tasak.

Nahiz eta urte hartan, urtez urte, urteko IPC.aren %a igotzea erabaki, hainbat urte igaro dira tasa horrek, inolako igoerarik izan gabe.

Abenduaren 27ko 4/1999 Foru Arauaren 11. artikulua, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Tramo eta Tarifak berriak ezarri ditu, 2001 urtetik aurrera aplikatu behar direnak.

Horren arabera, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Tramo eta Tarifak honela geldituko lirateke:

TRAMOAK ETA TARIFAK – 1,4 GEHIAGO ERANTSITA

ZAHARRAK			BERRIAK		
IBILGAILU MOTA	TRAMOAK	TARIFAK	IBILGAILU MOTA	TRAMOAK	TARIFAK
TURISMOAK	8 ZF. Baino gutxiago	2.400	TURISMOAK	9 ZF. Baino gutxiago	4.200
	8tik 12 ZF. Bitarte	6.400		9tik 11,99 ZF. Bitarte	8.400
	12tik 16 ZF. Bitarte	13.400		12tik 13,99 ZF. Bitarte	14.000
	16 ZF. Gorakoak	16.700		14tik 15,99 ZF. Bitarte	19.600
				16tik 19,99 ZF. Bitarte	25.200
				20 ZF. Gorakoak	30.800
AUTOBUSAK	21 Eserlekutik beherakoak	15.500	AUTOBUSAK	21 eserlekutik beherakoak	19.404
	21tik 50 bitartekoak	22.100		21etik 50 bitartekoak	27.636
	50tik gorakoak	27.600		50etik gorakoak	34.545
KAMIOIAK	1000 kg.ko erabilgarritik beher	7.900	KAMIOIAK	1000tik kg.ko erabilgarritik beher	9.849
	1000tik 2999 bitartekoak	15.500		1000tik 2999 bitartekoak	19.404
	2999tik 9999 bitartekoak	22.100		2999tik 9999 bitartekoak	27.636
	9999tik gorakoak	27.600		9999tik gorakoak	34.545
TRAKTOREAK	16 ZF. Beherakoak	3.300	TRAKTOREAK	16 ZF. Beherakoak	4.116
	16tik 25 bitartekoak	5.200		16tik 25 bitartekoak	6.468
	25tik gorakoak	15.500		25tik gorakoak	19.404
REMOLKE ETA ERDI REMOLKEAK	1000 kg.tik beherakoak	3.300	REMOLKE ETA ERDI REMOLKEA.	750tik 1000 bitartekoak	4.116
	1000tik 2999 bitartekoak	5.200		1000tik 2999 bitartekoak	6.468
	2999tik gorakoak	15.500		2999tik gorakoak	19.404
ZIKLOMOTOREAK		850	ZIKLOMOTOREAK		1.029
MOTOZIKLETAK	125cc bitartekoak	850	MOTOZIKLETAK	125 c.c. bitartekoak	1.029
	125tik 250 bitartekoak	1.450		125tik 250 bitartekoak	1.764
	250tik 500 bitartekoak	2.900		250tik 500 bitartekoak	3.528
	500tik 1000 bitartekoak	5.700		500tik 1000 bitartekoak	7.056
	1000tik gorakoak	11.300		1000tik gorakoak	14.112

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Gaineko Zergaren Tramo eta Tarifa Aldaketarako proposamena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, gehiengo absolutu legalaren aldeko botoekin, aho batez onartua izan da.

3.- IHARDUERA EKONOMIKOEN GAINKO ZERGAREN ALDAKETA

Alkateak, hitza harturik, zera dio:

Udal honek onartuak ditu, Iharduera Ekonomikoen Gaineko Zergagatik kobratu behar ziren tasak.

Nahiz eta urte hartan, urtez urte, urteko IPC.aren %a igotzea erabaki, hainbat urte igaro dira tasa horrek, inolako igoerarik izan gabe.

Horren arabera, Iharduera Ekonomikoen Gaineko Zergaren Tarifak honela geldituko lirateke:

Iharduera Ekonomikoen Gaineko Zerga tarifen gutxieneko kuoten gehikuntzako, 1,3ko kodefiziente bakarra.

Iharduera Ekonomikoen Gaineko Zergaren Aldaketarako proposamena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, gehiengo absolutu legalaren aldeko botoekin, aho batez onartua izan da.

4.- ONDASUN HIGIEZINEN ZERGAREN ALDAKETA

Alkateak, hitza harturik, zera dio:

Udal honek onartuak ditu, Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergagatik kobratu behar ziren tasak.

Nahiz eta urte hartan, urtez urte, urteko IPC.aren %a igotzea erabaki, hainbat urte igaro dira tasa horrek, inolako igoerarik izan gabe.

Horren arabera, Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergaren Tarifak honela geldituko lirateke:

Landa Ondasun Higiezinaren Gaineko Zerga tarifa finkatzea: 0,65%.

Hiri Ondasun Higiezinaren Gaineko Zerga tarifa finkatzea: 0,45%.

Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergaren Aldaketarako proposamena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, gehiengo absolutu legalaren aldeko botoekin, aho batez onartua izan da.

5.- UR HORNIKETA ZERBITZUAGATIKO TASAREN ALDAKETA

Alkateak, hitza harturik, zera dio:

Udal Ur Hornidura Tasak onartu zirenetik, orain direla sei bat urte, ez da geroztik inolako errebisiorik egon, nahiz eta urtero, IPC.a igotzea erabakita egon.

2001 urteko Udal Ur Horniduraren kostuak aztertuz gero, defizitariora dela konturatzen gara.

Hori dela eta, Udal Ur Hornidura Tasaren tarifak era honetan aldatzea, proposatu du:

UR ERREZIBOAK

ETXEAK

Hiruhilabetean	36 m³ x 25 pezta/m³ 36 m³tik gora – 35 pezta/m³
-----------------------	--

TABERNAK, DENDAK eta INDUSTRIAK

Hiruhilabetean	45 m³ x 35 pezta/m³ 45 m³tik gora – 45 pezta/m³
-----------------------	--

INFRAESTRUKTURA KANONA

Hiruhilabetean	800 pezta erreziboko
-----------------------	-----------------------------

KONTAGAILUEN MANTENIMENDUA

Hiruhilabetean 200,- pezta erreziboko

SAREARI LOTUNEA

Lotune Eskubidea: 7.500,- Pezta

Berlotune Eskubidea: 15.000,- Pezta

Proposamen hau onartzeak ez du esanahi, Udalak Udal Ur Hornidura zerbitzuarekin irabazirik edo kitaturik geratzen denik, zerbitzu horrek defizitarioak izaten jarraitzen duelako, kostuak honela gelditzen direlarik:

TARIFA HAUEN BIDEZ REKAUDAZIOA

Erreziboak Guztira: 224

Ura	224 x 36 x 25 x 4 =	806.400,- Pezta	
	Bez 7%	56.448,- Pezta =	862.848,
Infraestruktura Kanona	224 x 800 x 4 =	716.800,- Pezta	
	Bez 16%	114.688,- Pezta =	831.488,-
Kontagailuen Kanona	224 x 200 x 4 =		<u>179.200,-</u>
GUZTIRA UR ERREZIBOENGATIK SARRERAK			1.873.536,-

GASTUAK – 2000 URTEA

GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA – URA

25.000 x 43 x 7% Bez =	1.150.250,- Pezta
G.U.K. Infraestruktura Kanona	<u>816.000,-</u> Pezta
GUZTIRA GASTUAK	1.916.250,- Pezta
DIFERENTZIA – GALERA	1.916.250 – 1.873.536 = <u>42.714,-</u> Pezta

Ur Horniketa Zerbitzuagatiko Tasaren Aldaketarako proposamena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, gehiengo absolutu legalaren aldeko botoekin, aho batez onartua izan da.

6.- ZABORRA BILDU ETA SUNTSITZE ZERBITZUAGATIKO TASAREN ALDAKETA

Alkateak, hitza harturik, zera dio:

Zabor eta Hiri Hondakin Solidoak Etxez Etxe biltzeagatiko Tasak onartu zirenetik, orain direla sei bat urte, ez da geroztik inolako errebisiorik egon, nahiz eta urtero, IPC.a igotzea erabakita egon.

2001 urteko Zabor eta Hiri Hondakin Solidoak Etxez Etxe biltzeko zerbitzuaren kostuak aztertuz gero, defizitariora dela konturatzen gara.

Hori dela eta, Zabor eta Hiri Hondakin Solidoak Etxez Etxe Biltzeko Tasaren tarifak era honetan aldatzea, proposatu du:

Etxebizitzak - Hiruhilabeteen	1.500,- Pezta
Industriak - Hiruhilabeteen	2.500,- Pezta

Proposamen hau onartzeak ez du esanahi, Udalak Zabor eta Hiri Hondakin Solidoak Etxez Etxe Biltzeko zerbitzuarekin irabazirik edo kitaturik geratzen denik, zerbitzu hori defizitariora izaten jarraitzen duelako, kostuak honela gelditzen direlarik:

SARRERAK	
Etxebizitzak 174 x 1.500 x 4	1.020.000,-
Industriak 10 x 2.500 x 4	100.000,-
GUZTIRA	1.120.000,-
GASTUAK GUZTIRA-Mankomunitaterik gabe	1.514.932,-
GALERA	394.932,-
Mankomunitatea	342.740,-
OSOKO GALERA	737.672,-

Zaborra Bildu eta Suntsitze Zerbitzuagatiko Tasaren Aldaketarako proposamena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, gehiengo absolutu legalaren aldeko botoekin, aho batez onartua izan da.

7.- IGOKA ESPEDIENTEA. UNTXIEN GRANJA

Inaxio Zeberio Artolak, herri honetako Asura Etxeberri Baserrian, Konejuen Borda jartzeko eta iharduera horri ekiteko jarraitutako espedientea ikusiz gero.

Kontutan hartuaz, bere tramitazioa, aplikagarri diren legeen arabera egokitu dela, espedientean, Udal Teknikariek eta Osakidetzak luzatutako txostenak daudela, eta interesatuei dei egin zaiela, jendaurrean jarritako iragarkien bidez.

Kontutan hartuaz, eskatutako aktibitatea, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak, UNTXI GRANJA bezala, klasifikatu duela.

1961eko Azaroaren 30eko IGOKA Erregelamenduak eta ebazpen osagarriek diotenaren arabera, ERABAKI DA:

1.- INAXIO ZEBERIO ARTOLA baimentzea, herri honetako Asura Etxeberri Baserrian, Untxi Granja jartzeko, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxabizitza eta Ingurugiroak ezarritako neurri zuzentzaileak bete behar direlarik.

A) BALDINTZAK

1.- Aldeko Ikuskaritza Akta lortu aurretik ezin izango da, aktibitatea martxan jarri.

2.- Akta hori lortu ahal izateko, Inaxio Zeberio Artolak, Udalari eskatu beharko dio, Ikuskaritza bisita egiteko.

1998ko otsailaren 27ko 3/1998ko Legearen, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorraren 61.4 artikuluan ezarritakoari jarraiki, jarduera ezin izango da martxan jarri, Irekitzeko Lizentzia eskuratu arte.

Aipatutako Irekitze Lizentzia eskuratzeko derrigorrezkoa da eskumena duen funtzionari tekniko batek dagokion egiazpenerako bisitaldia egitea.

8.- IGOKA ESPEDIENTEA. MAMIA EGITEKO FABRIKA

Roke Arozena Goikoetxea, herri honetako Lezinea Baserrian Artegi eta Mamia egiteko jarduera bat jartzeko jarraitutako espedientea ikusiz gero.

Kontutan hartuaz, bere tramitazioa, aplikagarri diren legeen arabera egokitu dela, espedientean, Udal Teknikariek eta Osakidetzak luzatutako txostenak daudela, eta interesatuei dei egin zaiela, jendaurrean jarritako iragarkien bidez.

Kontutan hartuaz, eskatutako aktibitatea, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak, ARTEGI ETA MAMIA EGITEKO JARDUERA bezala, klasifikatu duela.

1961eko Azaroaren 30eko IGOKA Erregelamenduak eta ebazpen osagarriek diotenaren arabera, ERABAKI DA:

1.- ROKE AROZENA GOIKOETXEA Jauna baimentzea, herri honetako Lezinea Baserrian, Artegi eta Mamia egiteko Jarduera jartzeko, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak ezarritako neurri zuzentzaileak bete behar direlarik.:

B) BALDINTZAK

1.- Aldeko Ikuskaritza Akta lortu aurretik ezin izango da, aktibitatea martxan jarri.

2.- Akta hori lortu ahal izateko, Kooperatibak Udalari eskatu beharko dio, Ikuskaritza bisita egiteko.

1998ko otsailaren 27ko 3/1998ko Legearen, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorraren 61.4 artikuluan ezarritakoari jarraiki, jarduera ezin izango da martxan jarri, Irekitzeko Lizentzia eskuratu arte.

Aipatutako Irekitze Lizentzia eskuratzeko derrigorrezkoa da eskumena duen funtzionari tekniko batek dagokion egiazpenerako bisitaldia egitea.

9.- UEMAKO ESTATUTUEN ALDAKETA

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak, bere Estatutuen hainbat artikulua aldatzeko proposamena aurkeztu du, eta hauek dira aldaketak:

LEHENA.- 2.1. artikulua honela geratzen da:

2.1. art.- Aurreko artikuluan aipatutako erakunde lokalari "Udal Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA) izena eman zaio, eta Aulestiko Udaletxean kokatuko du bere egoitza.

BIGARRENA.- 6. artikuluko d) puntua, 22. eta 23. artikulua kendu egin dira.

HIRUGARRENA.- 14.b puntua honela geratzen da:

14.b).- Batzar Nagusiak Udal ordezkarien artetik aukeratutako 10 kideek, lurralde guztietatik ordezkaturik egon behar dutelarik.

LAUGARRENA.- 20. artikulua honela geratzen da:

20. art.- Mankomunitateko IDAZKARITZA eta KONTUHARTZAILETZA betebeharrak, Lehendakariaren Udalean zeregin hori dituzten funtzionario edo funtzionarioak beteko dabez. Hala ere,

Lehendakariak, Mankomunitateko beste Udal bateko funtzionario edo funtzionarioak izendatu ahal izango ditu.

Gordelaritza eginkizunekin Lehendakariak izendatutakoa arduratuko da.

Idazkariaren betebeharrak ondorengoak izango dira:

- 1) Batzar Nagusiak egiten dauzan batzarreko akta jaso.
- 2) Mankomunitateko organoek hartuko dabezan erabakien edo burutuko dabezan ekintzen ziurtagiriak emon.
- 3) Mankomunitateko Lehendakaritza, Lehendakariordetza eta Batzar Nagusia aholkatu juridikoki, txostena beharrezkoa dan edo eskatzen dan bakoitzean.
- 4) Orokorrean, Tokiko legediak udaleko idazkariari eratzikitako eginkizunak betetzea Mankomunitatean.

Kontuhartzailearen betebeharrak ondorengoak izango dira:

- 1) Ohiko Aurrekontua edo bereziaren aurreproiektua egitea, edota bere kasuan, haren kontuak prestatu eta egitea.
- 2) Mankomunitatearen kudeaketa ekonomikoa fiskalizatzea, haren kontabilitatea eroatea eta ordainketa eta dirusarrera aginduak emotea.

BOSTGARRENA.- 28. Artikulua honela geratzen da:

VII. KAPITULUA

28. art.- IPARRALDEko Udalek Mankomunitatearen helburuekin bat egin ahal izango dute. Beraiek burutzeko dagozkion hitzarmenak sinatuko dira Udal bakoitzaren eta Mankomunitatearen artean.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) aurkeztutako Estatutuen aldaketarako proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

10.- GIPUZKOAKO UDAL TXIKIEN DIAGNOSTIKO SOZIO-EKONOMIKOARI BURUZKO DIRU-LAGUNTZA

Gipuzkoako Foru Aldundiako Ekonomi eta Turismo Departamentuak onartutako, 2000 urterako Gipuzkoako Garapen Ekonomiko eta Lokalaren Helburutan Azterketak eta Proposamenak Egiteko Udalentsako Laguntza arautzen dituen ekainaren 20ko 59/2000 Foru Dekretuaren babesean, Lizartzako Udalarentzat, 807.483,- peztako zenbatekoa onartu du, "Gipuzkoako Udal Txikien Diagnostiko Sozio-Ekonomikoa Burutzeko".

UEMArekin harremanetan jarri ondoren, lan hori SIADECOk egin behar duenez, beren proposamena aurkeztu dute, eta hau izan da:

"Gipuzkoako Udalerri Txikien Garapen Sozioekonomikorako Aurreplana burutzeko Aurrekontua, MILIOIA HOGEITA HAMABOST MILA ETA HIRUROGEITA HAMASEI (1.035.076,-) Pezta."

Horren arabera, Lizartzari dagokion, Gipuzkoako Udalerri Txikien Garapen Sozioekonomikorako Aurreplana burutzeko lanak, SIADECO, Sozio-Ekonomi Ikerketa Elkarteari (1.035.076,-) Peztatan adjudikatzea, aho batez onartu da.

11.- UDAL BIZTANLEEN ERROLDATIK BAJA EMATEA

M^a Aranzazu Garmendia Mayoz Andreak, bere etxean erroldatuta dauden, Inmaculada Barriola Garmendia, Ana Lopez Barriola eta Aner Lopez

Barriola, Udal Biztanleen Erroldatik, helbide horretan, baja ematea eskatu du, bertan bizi ez direlako.

Eskaeran agertzen dena, horrela dela egiaztatu ondoren, tokatzen den prozedimendua jarraituz, hiru pertsona hoiei, Udal Biztanleen Erroldan Baja ematea, aho batez onartu da.

12.- SENDERISMOA

Tolosaldean, Mendi Ibilien Plana antolatu da, tartean, Lizartza dagoelarik.

Eskualdeko proiektu bat denez, herri guztietako seinaliztapena, publikazioaren diseinua, eta panelek diseinu bera izan behar dute, Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundian eskatutako dirulaguntzetan eskualdeko proiektu bezela aurkeztu delako.

Oraingoz ibilbide hauek daude pre-homologatuta:

PR-Gi 10	LIZARTZA-ARUME-ILLARRAZU-LIZARTZA
PR-Gi 11	GAZTELU-ULI-OREXA-GAZTELU
PR-Gi 13	ANOETA-ALKIZA-ANOETA
PR-Gi 112	ALEGI
PR-Gi 113	BEDAIO
PR-Gi 114	ALTZO, IPUZKOA JAUNEN GALTZADA
PR-Gi 115	TOLOSA
PR-Gi 116	BERASTEGI-ULI-BERASTEGI
PR-Gi 117	BERASTEGI-URTO-BERASTEGI
PR-Gi 118	KANAL IBILBIDEA, BILLABONA
PR-Gi 119	ADUNA-ZIZURKIL-ADUNA
PR-Gi 120	OLAGIZONEN IBILBIDEA, LARRAUL
PR-Gi 121	ALKIZA-ZOPITE-ALKIZA
PR-Gi 122	GAZTELU-LEABURU
SL-Gi 5	BALIARRAIN-ALTZAGARATE-BALIARRAIN

SL-Gi 6 OTARRE BIDEA, ABALTZISKETA
SL-Gi 7 ALKIZA

Homologazioa lortzeko bete beharreko pausoak, seinaleztapena eta publikazioa dira.

Aurrekontuari dagokionez ondorengo kontzeptuak eduki behar dira kontutan udaletxe bakoitzean:

Diseinua: lan honetan enpresa pribatu bat ari da.

Homologazioa: Mendi Federakundeari homologazio eta gastu administratibo kontzeptuetarako ordaindu egin behar zaio.

Publikazioa: guztira 5000 ale izango dira (euskeraz 2500 eta gazteleraz 2500). Hauetatik 1000 udaletxearentzat izango dira. Gehiago nahi izanez gero Udaletxeak alde zuzenetik adierazi beharko digu zenbat gehiago nahi dituen, kostu gehigarria udaletxearen kontura joango delarik.

Argazki Aereoak: Mendi ibili bakoitzak bere argazki aereoak izango du publikaziorako.

Mendi ibilien mantenimendu eta garbiketa, Udaletxe bakoitzaren kontura joango da. TOLOMENDI-k duen zerbitzuaren bidez egin dezakete kide diren udalek.

Seinaliztapena: Federazioak markatutakoa eta seinale bertikalak. (Oraindik zehaztu gabe dago nola egingo den).

Panelak: Bide bakoitzak bere panela izango du ibilbideaz gain herriko informazio interesagarria emango delarik.

Gastu guzti hauek kontutan izanik PR bakoitzeko, ondorengo gastua izango du Udaletxeak (gastu osoaren %30):. **Guztira: 225.000,- Pezta**

Tolosaldeko Mendi Ibili Planaren edukia eta aurrekontua aztertu eta eztabaidatu ondoren, aurkeztutako Aurrekontua onartu eta, Plan horretan parte hartzea, aho batez erabaki da

12.- ALKATETZAREN DEKRETUAK

ALKATEAREN ORDEZKAPENA

Abuztuaren 7tik 16 bitarte, Alkatearen laneko arazoak direla eta, bere ordezkapenerako, ANA EDERRA IRURZUN, Alkate Ordea izendatzen dut, epe horretan, Alakatearen Ordezkoan aritzeko.

BASAITZ GOIENA BASERRIA

Basaitz Goiena baserria eraberritzeko lanen garrantzia dela eta beharrezkoa da obrak egiteko litzentzia emateko, gai den teknikariak sinaturiko gauzatze proiektua aurkeztea.

JUAN SAN SEBASTIAN MURUA

Lursailaren itxitura eta txabolaren altuera handitzeko baimena ematen da, baldintzapen hauekin:

Aztertzen ari garen txabolak, behin-behineko baimena eman zitzaionean, Arau Subsidiarioetan azaltzen zen baldintza bat etzuen betetzen: berau eraiki ahal izateko 8.000 m²-ko partzela minimoarena, alegia.

Gaur egun egoera berdina da. Beraz, eta Arau Subsidiarioek zonalde honetan ezartzen duten gehienezko altuera gainditzen ez denez, egiten den eskaerari behin-behineko baimena ematea erabakitzen da.

Lursailaren itxiturari dagokionez, gehienez, 20 cm. Altuera den hormigoizko oinarria onargarrizat jotzen da; beti ere behin-behineko baimenarekin.

MINICENTRALES DEL ARAXES

Minicentrales del Araxes-en fatxadaren pintaketa egiteko baimena ematen da.

JOSE M^a ETXEBERRIA MAIZ

Kale Nagusia, 6 zenbakian kalentadoraren tuboa jartzeko baimena ematen da.

BARATZA BASERRIA

Baratza Baserria botatzeko baimena ematen da, baldintzapen hauekin:

- 1.- Suntsitzea eskuz egingo da aurkeztutako proiektuak dion bezala, bertan azaltzen diren prebentzio neurri guztiak bete behar direlarik.
- 2.- Kokalekuaren malda dela eta, Baratza Baserriaren azpikaldean dauden etxeak kaltetuta ez suertatzeko itxitura edo babesen bat jartzea beharrezkoa izango da.
- 3.- Proiektuak dion bezala, oinezkoek eta ibilgailuek erabiltzen duten bidea babesteko neurriak hartuko dira.
- 4.- Obrak hasi aurretik, obra zuzenduko duen Zuzendariaren izendapenaren berri emango zaio Udalari.
- 5.- Azpiegiturei eta bideari eragiten dioten botatzen lanak, Udalaren obra zerbitzuarekin koordinatuz egingo dira.

ISTILETA GOIKOA

Istileta Goikoa baserriaren fatxada zarpeatu eta pintatzeko baimena ematen da.

M^a JESUS AROZENA

Guk Nahigenduena, 5.eko etxeko bainugelan konponketak egiteko baimena ematen da.

MANUEL IBARGUREN

Toki Alai, 2. Esk.an balkoia atera eta aluminiozko leihoak jartzeko baimena ematen da, baldintzapen hauekin:

- Hegala, gehienez, 0,8 m. irten daiteke.
- Fatxadaren luzeraren %50 baino gutxiago bete behar du.

JOAKIN GALARZA GALARZA

Kale Nagusia, 9ko teilatuko kanaloia konpondu, eta fatxada pintatzeko baimena ematen da.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko hamart'erdiak direnean.